

ELIKAGAIAK ALFERRIK GALTZEARI BURUZKO EUSKADIKO BIZTANLEEN IRITZIAK, PRAKTIKAK ETA JARRERAK



euskadiko merkataritzaren behatokia
observatorio del comercio de euskadi



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

| AURKIBIDEA

1. HELBURUAK ETA METODOLOGIA	3
1.1. Sarrera eta helburuak	4
1.2. Fitxa Teknikoa	7
2. ELIGAIK ALFERRIK GALTZEARI BURUZKO EUSKADIKO BIZTANLEEN HAUTEMATEA	9
2.1. Elikagaiak botatzen diren maiztasunari buruzko hautematea	11
2.2. Ba al daki kontsumitzaileak nolakoa den bere elikagaien xahutzea?	18
2.3. Botatzen diren elikagaien produktu kategoriak	25
2.4. Euskal biztanleek elikagaiak botatzean aitortutako deserosotasun-maila	33
3. ELIKAGIAK ALFERRIK BOTATZEAREN INGURUKO ORAINTSUKO BILAKAERA	42
4. ELIKAGIAK ALFERRIK BOTATZEAREN AURKAKO OHITUREN ERAGINA	48
5. ELIKAGIAK ALFERRIK BOTATZEARI BURUZKO BIZTANLEEN JARRERAK ETA IRITZIAK	58
5.1. Kolektibo eta erakunde desberdinei elikagaiak xahutzearen aurka jarduteko emandako gaitasuna	59
5.2. Elikagaiak alferrik botatzearen ondorioak identifikatzea	65
5.3. Elikagaiak alferrik botatzearen aurrean euskal biztanleek hartutako jarrerak	69
6. ELIKAGIAK ALFERRIK BOTATZEAREN AURKAKO JARDUEREN ERAGINA	75
6.1. Elikagaiak alferrik botatzearen aurkako herritarren ekimenak	76
6.2. Elikagaiak alferrik botatzearen aurkako aplikazioak ezagutzea eta erabiltzea	80
7. KANPAINAREN KONTZIENTZIAZIO ETA AGERIKOTASUN PREMIA	90
8. AZKEN GOGOETAK	96

1.1. Sarrera eta helburuak

Helburu orokorrak

Enfokamer Merkataritza Behatokian dihardugunok azterlan monografiko bat osatu nahi dugu, elikagaiak alferrik galtzearen arazoa jorratzeko. Azterketa horretaz baliatuz, Euskadiko biztanleek aipatutako arazoarekiko duten kontzientziario eta inplikazio-maila neurtu nahi dugu, hartara, euren iritziak, jarrerak eta baita hari aurre egiteko burutzen dituzten jarduera zehatzak ere ezagutu ahal izango ditugu.

Zundaketa horren xedea ez da euskal herritarrek xahutzen dituzten produktuen kopurua zehatz-mehatz ezagutzea, aztergai dugun arazoa nola hautematen duten azpimarratzea baizik, jakin badakigulako herritar gehienok oraindik ez diogula alferrikako xahutzea neurtzeak eta aztertzeak eskatzen duen esfortzu itzelari ekin.

Edukiontzira botatzen diren elikagaien kopurua ikerketa-planteamenduaren aztergaia dela aintzat hartuta, helburua honako datu hauek ezagutzea izango da, besteak beste: kontsumitzaileak alferrik botatzen dituen elikagaien kopurua nola baloratzen duen, bere ustez, aipatutako xahutze hori nolakoa den eta hari aurre egiteko zer-nolako ekimenei heldu dien, hala adierazi badu.

Era berean, azterlanak aztergai izango ditu ere gizarteak eskura ditugun eskaintza ugarien aurrean herritarrok ditugun jarrerak, eta ezagutzera eman nahi ditu arazo horrek dakartzan dimentsioak edo zuzeneko ondorioak.



Helburu zehatzak

Azterlanak honako helburu zehatzak bete nahi ditu:

- Euskadiko biztanleek etxean elikagaiak botatzen dituzten maiztasunaz duten pertzepzioan sakontzea.
- Xahutzearen jatorria ezagutzea, bai platerarena, bai hozkailuarena, eta baita gehien botatzen diren produktuen kategoriak ere.
- Euskal gizartearen kontzientziazio-maila eta oraintsuko bilakaera zein den jakitea, kontsumitzaileak urtebete lehenago baino elikagai gehiago edo gutxiago alferrik xahutzen duela uste duen jakiteko.
- Elikagai gutxiago alferrik galtzearen alde egiten duten elikagaiak erosteko eta kontserbatzeko zenbait ohituren eraginean sakontzea.
- Arazo horren inpaktuarekiko sortzen diren jarrerak eta iritziak neurtzea, eta baita ere hura prebenitzeko hainbat erakunderi edo kolektibori jarduteko emandako gaitasuna ere.
- Elikagaiak alferrik galtzearen aurkako aplikazioen eragina, ezagutza eta erabilera euskal gizartean zabaltzea.
- Eta, "Janaria ez da botatzen" komunikazio-kanpaina zenbateraino gogoratzen duten jakitea.

1.2. Fitxa Teknikoa

Fitxa teknikoa

Planteatutako helburuak bete ahal izateko, metodologiari dagokionez, ikerketa kuantitatiboko teknikak aukeratu ditugu, hurrengo ezaugarriak dituen zundaketa baten bidez:

Teknika



Online elkarrizketa euskal biztanleria ordezkatzeko duen **talde** bati zuzenduta

Xedeko publikoa



20 eta 65 urte arteko **euskal herritar**ak. Laginketa ausazkoa izan da, sexua, adin multzoa eta lurralde historikoa bezalako aldagaien arabera geruzetan sailkatuta.

Lagina



701 elkarrizketa osatu dira, alegia, $e = \pm \% 3,7$ **errore marjina** (% 95,2 konfiantza-maila baterako, μ -rekiko 2 s $p=q=0,5$ izanik)

Egutegia



Lan-esparrua 2024ko urtarrilaren **17 eta 29 bitartean** burutu zen.

2.-

ELIKAGAIAK ALFERRIK
GALTZEARI BURUZKO
EUSKADIKO BIZTANLEEN
HAUTEMATEA

Orrialde hauetan Euskadiko herritarren hautematea aztertuko dugu, etxean elikagaiak botatzen dituzten maiztasunari dagokionez.

Horrez gain, aztertuko dugu ere zenbat elikagai botatzen dituzten zuzenean jaki-tokitik edo hozkailutik batera manipulatu gabe eta prestatu ondoren, lapikotik edo plateretik botatzen dituztenak.

Era berean, biztanleek elikagaik alferrik botatzeak eragiten dien deserosotasun edo traba-maila adieraziko dugu, arazo honekiko dagoen kontzientziazio adierazle bat baita.

2.1. Elikagaiak botatzen diren maiztasunari buruzko hautematea

20 eta 65 urte arteko euskal biztanleen % 14,0k dio etxean elikagaiak "egunero edo ia egunero" botatzen dituela. Bestalde, kontsultatutakoen % 20,8k dio elikagaiak "maiz" botatzen dituela. % 27,7ren ustez "noizean behin" egiten du. Eta, % 37,5ek, berriz, esan du ez duela elikagairik "inoiz edo ia inoiz" botatzen.

Horrenbestez, hiru lagunetatik batek- % 37,5- elikagaiak alferrik botatzearen aurkako jarrerak ditu, edo, horretan diharduela uste du, behintzat.

Galdetutako pertsonaren adinak gora egiten duen heinean, ez duela elikagairik inoiz edo ia inoiz botatzen adierazten dutenen elkarrizketatutakoen kopuruak ere gora egiten du. 20 eta 34 urteen artean, elikagairik botatzen ez dutenen kopurua guztien % 24,1 da. Talde horrek % 31,6 egiten du gora 35 eta 49 urte artean dutenengan eta bi lagunetatik batera iristen da - % 50,5- 50 urte baino gehiago dutenen taldean.

Adinez gain, badirudi gizonezkoek eta emakumezkoek ez dutela bat egiten etxean elikagaiak botatzen direnen maiztasunari dagokionez. Kontsultatutako hamar emakumeetatik lauk dio ez duela elikagairik inoiz edo ia inoiz botatzen. (% 41,7). Gizonezkoei dagokionez, hamar gizonezkoetatik hiru izango dira. (% 33,4). Izan ere, gizonezkoen % 18,1ek elikagaiak egunero edo ia egunero botatzen ditu, eta emakumeengan, berriz, kopurua % 9,8 da.

Etxe motari dagokionez, badirudi elikagaiak alferrik botatzea ekiditeko garatutako jarraibideek edo jarrerak antzeko lagun-talde bati eragiten diotela, etxeke osaera alde batera utzita.


Hala ere, elikagaiak botatzen dituztela uste dutenen artean, seme-alabarik gabeko bikoteek osatutakoen etxeak dira elikagaiak egunero edo maiz botatzen dituztela esandakoen kopuru txikiena ordezkatzeko dutenak; % 25,7, alegia. Bakarrik bizi direnen etxeek, berriz, elikagaiak maizago botatzen dituztela uste dutenen kopuru altuena suposatuko lukete (% 38,8), eta, azkenik, haurrak dituzten etxeak gertu kokatuko lirateke (% 37,5).

Eskema hori sortu da etxeeko kideen kopuruaren arabera azterketa burutu ondoren. Beraz, hainbat eta etxe batean lagun gehiago bizi, gero eta handiagoa da elikagaiak maiz edo ia egunero, modu intentsiboagoan, botatzen dutenen biztanleen taldea. Lau kidek edo gehiagok osatutako etxeetan, % 40,1ek dio elikagaiak maiz botatzen dituela zaborrera.

Etxean elikagaiak botatzen direnen maiztasunaren hautematea

1. G.: Zure ustez etxean maiz botatzen al dituzu elikagaiak zaborrera?*


Oinarria: Elkarriketatutako pertsona guztiak



Etxean elikagaiak botatzen direnen maiztasunaren hautematea sexuaren eta adinaren arabera

1. G.: Zure ustez etxean maiz botatzen al dituzu elikagaiak zaborrera?*


Oinarria: Elkarriketatutako pertsona guztiak



Etxean elikagaiak botatzen direnen maiztasunaren hautematea etxe motaren arabera

1. G.: Zure ustez etxean maiz botatzen al dituzu elikagaiak zaborrera?*


Oinarria: Elkarriketatutako pertsona guztiak



Etxean elikagaiak botatzen direnen maiztasunaren hautematea etxeko neurriaren arabera

1. G.: Zure ustez etxean maiz botatzen al dituzu elikagaiak zaborrera?*

Oinarria: Elkarriketatutako pertsona guztiak




2.2. Ba al daki kontsumitzaileak nolakoa den bere elikagaien xahutzea?

Geure buruari galdetu behar diogu ea Euskadiko biztanleek jaki-tokian edo hozkailuan ahantzian geratu diren elikagai gehiago edo gutxiago botatzen dituzten, edo zaborrera botatzen dituzten elikagaiak nagusiki hondarrak diren, alegia, prestaketa prozesu batetik pasa diren eta lapikoan edo platerean geratu diren elikagaiak. Azterketak ez du neurketa zehatzik eskaintzen, baina kontsumitzaileen hautematea aditzera ematen du.

Lortutako datuen arabera, badirudi hondarretatik eratorritako xahutzea prestatu gabeko produktuetatik eratorritakoari nagusitzen zaiola.

Etxean elikagaiak botatzen dituela uste duten Euskadiko biztanleen esanetan, botatako elikagaien % 60,6 lapikotik edo plateretik zuzenean botatzen diren prestatutako produktuei dagokie. Hots; hondarrez ari gara. Bestalde, botatako produktuen % 39,4 jaki-tokian edo hozkailuan egon ondoren ukitu gabe bota diren produktuei dagokie.



35 eta 49 urte arteko Euskadiko biztanleen artean, ahaztutako edo iraungitako prestatu edo manipulatu gabeko produktuak botatzearen hautematea beste adin-taldeei aurre hartzen die. Baina, agerian geratzen da etxe mota edo hura osatzen duten kopuruaren aldagaiak direla desberdintasun handienak dakartzatenak. Horri dagokionez, bakarrik bizi direnek diote elikagai gehiago botatzen dituztela hozkailutik edo jaki-tokitik zuzenean; alegia, botatzen dituzten produktu guztien % 53,9.

Bestalde, seme-alabak dituzten etxeok uste dute zaborrera botatzen dituzten elikagaiak nagusiki hondarrak direla. Talde horri dagokionez, hondarrak aste jakin batean botatzen diren elikagai guztien % 64,4 dira.


Oraingo honetan ere etxeok neurriak nabarmen utzi du Euskadiko biztanleengan hainbat portaera desberdin ematen direla. Pertsona bakarrak osatutako etxeak izango dira botatuko elikagai gehienak ahaztu diren edo hozkailuan edo jaki-tokian manipulatu gabe txarrak jarri diren elikagaiak nagusitzen diren bakarrak. Etxeko kideen kopuruak gora egiten duen heinean, berriz, etxean alferrik galtzen diren elikagai guztien artean, hondarrei ematen zaien pisuak ere gora egiten du.

Botatzen diren elikagaien jatorriari buruzko herritarren hautematea

2.G.: Aste jakin batean botatzen dituzun elikagai guztietatik, zure ustez zein ehuneko dagokio honako honi...?*


Oinarria: Etxean elikagaiak botatzen dituzten elkarriketatutako guztiak (n=661)

Hozkailutik edo jaki-tokitik zuzenean, prestatu gabe, bota ziren elikagaien %



Kontsumitzaileen ustez, aste jakin batean botatzen diren elikagaien % 39,4 jaki-tokian edo hozkailuan ahaztutako eta zuzenean ukitu edo prestatu gabe botatzen diren produktuei dagokie

Lapikotik edo plateretik, prestatu ondoren, bota ziren elikagaien %




Kontsumitzaileen ustez, aste jakin batean botatzen diren elikagaien % 60,6 hondarrei dagokie, alegia; prestatu diren produktuak

Botatzen diren elikaduren jatorriaren hautematea, aldagaien arabera

2.G.: Aste jakin batean botatzen dituzun elikagai guztietatik, zure ustez zein ehuneko dagokio honako honi...?*


Oinarria: Etxean elikagaiak botatzen dituzten elkarriketatutako guztiak (n=661)



Botatzen diren elikagaien jatorriaren hautematea etxe motaren arabera

2.G.: Aste jakin batean botatzen dituzun elikagai guztietatik, zure ustez zein ehuneko dagokio honako honi...?*


Oinarria: Etxean elikagaiak botatzen dituzten elkarriketatutako guztiak (n=661)



Botatzen diren elikagaien jatorriaren hautematea etxe neurriaren arabera

2.G.: Aste jakin batean botatzen dituzun elikagai guztietatik, zure ustez zein ehuneko dagokio honako honi...?*

Oinarria: Etxean elikagaiak botatzen dituzten elkarriketatutako guztiak (n=661)



2.3. Botatzen diren elikagaien produktu kategoriak

Badirudi jaki-tokitik edo hozkailutik zuzenean, manipulatu gabe, botatzen diren elikagaiak produktu freskoren bi kategoria nagusitan murgiltzen direla, gainontzeko produktuetatik oso urrun. Hemen, fruta gehien botatzen den produktu mota da, kontsultatutako % 62,4k esandakoari jarraiki. Oso getu barazkiak aurkituko ditugu, galdetutako hamar pertsonetatik seik aipatu duten bezala (% 61,0).

Bigarren plano batean, honako hauek dira zaborrera botatzeko joera dugun elikagaiak:


- Ogia (% 26,1)
- Esnekiak (% 20,0)
- Aurretik prestatutako produktuak (% 12,7)
- Haragiak (% 12,0)
- Arrainak (% 8,3)

Hondarrei dagokienez, alegia, dagoeneko prestatu diren elikagaiak, honako hau topatuko dugu:

- Egoskariak (% 29,2)
- Barazkiak (% 27,0)
- Arroza (% 24,3)
- Pasta (% 22,5)
- Haragiak (% 21,5)
- Arrainak (% 18,6)

Hozkailutik edo jaki-tokitik manipulatu gabe botatzen diren elikagaiak

3.1. G.: Elikagai motei dagokienez, zeintzuk dira etxean nagusiki botatzen dituzun elikagaiak, bai hozkailutik, bai jaki-tokitik, ukitu gabe...?
Oinarria: Noizean behin elikagaiak botatzen dituzten elkarriketatutako guztiak




Manipulatu gabe hozkailu edo jaki-tokitik botatako elikagaiak adinaren arabera

3.1.G.: Elikagai motei dagokienez, zeintzuk botatzen dituzu nagusiki etxean bai hozkailutik, bai jaki-tokitik, ukitu gabe...?

Oinarria: Noizbehinka elikagaiak botatzen dituzten elkarrizketatutakoak guztira

■ 20 eta 34 urte artean (n=166) ■ 35 eta 49 urte artean (n=236) ■ 50 eta 65 urte artean (n=260)




Manipulatu gabe hozkailu edo jaki-tokitik botatako elikagaiak etxe neurriaren arabera

3.1.G.: Elikagai motei dagokienez, zeintzuk botatzen dituzu nagusiki etxean bai hozkailutik, bai jaki-tokitik, ukitu gabe...?

Oinarria: Noizbehinka elikagaiak botatzen dituzten elkarrizketatutakoak guztira


■ Pertsona bat (n=70) ■ Bi pertsona (n=183) ■ Hiru pertsona (n=179) ■ Lau pertsona edo gehiago (n=229)



Botatzen diren dagoeneko prestatutako elikagaiak

3.2..G.: Elikagai motari dagokionez, zeintzuk botatzen dituzu nagusiki etxean bai lapikotik edo bai dagoeneko prestatutako plateretik?

Oinarria: Noizbehinka elikagaiak botatzen dituzten elkarriketatutako guztiak




Botatzen diren dagoeneko prestatutako elikagaiak adinaren arabera

3.2..G.: Elikagai motari dagokionez, zeintzuk botatzen dituzu nagusiki etxean bai lapikotik edo bai dagoeneko prestatutako plateretik?

Oinarria: Noizbehinka elikagaiak botatzen dituzten elkarrizketatutako guztiak

■ 20 eta 34 urte artean (n=166) ■ 35 eta 49 urte artean (n=236) ■ 50 eta 65 urte artean (n=260)




* Aukerak erakusgai jarri ziren. Erantzun anitza.

Botatzen diren dagoeneko prestatutako elikagaiak etxeko neurriaren arabera

3.2..G.: Elikagai motari dagokionez, zeintzuk botatzen dituzu nagusiki etxean bai lapikotik edo bai dagoeneko prestatutako plateretik?

Oinarria: Noizbehinka elikagaiak botatzen dituzten elkarrizketatutako guztiak

■ Pertsona bat (n=70) ■ Bi pertsona (n=183) ■ Hiru pertsona (n=179) ■ Lau pertsona edo gehiago (n=229)



* Aukerak erakusgai jarri ziren. Erantzun anitza.

2.4. Euskal biztanleek elikagaiak botatzean aitortutako deserosotasun-maila

20 eta 65 urte bitarteko euskal biztanleei galdetu zaie elikagaiak botatzeak eragiten dien deserosotasun-mailari buruz. Horrekin lotuta aurretik prestatutako produktuak izan ala ez izatearen artean desberdinu dugu. Desberdintasun hori, nolabait, mota hauetako arazo batean aurrean adierazitako kontzientziazio-mailaren beste adierazle bat baita.

Ondorengo grafikoetan ikus daitekeen bezala, biztanleen % 77,1ek dio oso desatsegina dela erosi dituzten eta hozkailuan edo jaki-tokian ahazten edo hondatzen diren elikagaiak botatzea. Hain zuzen ere, % 62,2 0 eta 10 bitarteko eskalaren goiko aldean kokatu da, non 10 deserosotasun-maila altuena den. Batezbestekoa 9,2 puntuetara iritsi da, hots; oso balio altua.

Elikagai hauek kontsumitzeko prestatu gabeko botatzeko arrazoien artean, parte-hartzaileek nagusiki azaldu dute hondatzearen ondorioz bota egiten dituztela (% 47,3) edo hozkailuan edo jaki-tokian ahaztu egiten zaizkiela (% 45,2). Ehunekoak txikiagoak izan arren, arrazoi hauek ere aipatu dituzte: erosterakoan iraungitze datei ez erreparatzea (% 26,4), produktuen bizitza baliagarri laburra (% 25,4), plan aldaketak eta ondorioz kanpoan maizago bazkaltzea edo afaltzea (% 17,7), antolaketa desegokia erosterakoan (% 15,8), edo behar baino gehiago erostera bultzatzen duten eskaintzak edo deskontuak (% 10,1), besteak beste.

Dagoeneko prestatutako janaria botatzeak eragiten duen deserosotasun-mailari dagokionez, hau da, hondarrak, Euskadiko herritarrek oraingo honetan ere oso desatsegina dela adierazi dute, ukitu gabeko elikagaiei dagokionez ehunekoa zertxobait jaisten bada ere. Hor, aitortutako batezbestekoa 8,8 puntura jaitsi da eta % 67,1 izango da deserosotasun-mailarik altuena adierazi dutenen ehunekoa.


Kausei dagokienez, kasua nagusiak behar baino janari kopuru gehiago prestatzearekin zerikusia dauka. Gehiengoak aipatutako kausa hori adieraziko du (% 56,5).

Bigarren plano batean bestelako kausa batzuk ere aipatu dira, besteak beste: planak aldatzea eta maizago bazkaltzea edo afaltzea etxetik kanpo (% 21,9), sobratu dena ez izoztea (% 20,9), hondarrekin zer prestatu dezaketen ez jakitea eta horrenbestez produktu bat nola berrerabili ez ezagutzea (% 18,2), edo hondarrak gordetzeko toki nahikorik ez izatea (% 15,5).

Elikagaiak zuzenean prestatu gabe botatzeak eragiten duen deserosotasun-maila

7. G.: Zer nolako deserosotasun-maila eragiten dizu elikagaiak zuzenean botatzeak, alegia, erosita eta prestatu gabe...?

Oinarria: Elkarriketatutako guztiak




* 0 "batere" eta 10 "asko" arteko deserosotasun-mailari buruzko eskalaren batezbesteko puntuazioa 36

Elikagaiak zuzenean prestatu gabe botatzea eragiten duten kausak

8.G. Zure kasuan, zeintzuk dira erositako elikagaiak sukaldean prestatu gabe botatzera eramaten zaituzten kausa nagusiak?



Oinarria: Elkarriketatutako guztiak



Dagoeneko prestatu diren elikagaiak lapikotik edo plateretik botatzeak eragiten duen deserosotasun-maila

9.G.: Eta zein deserosotasun-maila eragiten dizu dagoeneko prestatu diren elikagaiak, hondarrak lapikotik edo plateretik botatzeak...?

Oinarria: Elkarriketatutako guztiak




Elikagaiak zuzenean prestatu gabe botatzea eragiten duten kausak


10.G.: Zure kasuan, zeintzuk dira hondarrak lapikotik edo plateretik botatzera eramaten zaituzten kausa nagusiak?

Oinarria: Elkarriketatutako guztiak


Errazioak doitzeagatik



Elikagaiak botatzeak eragiten duen deserosotasun-maila...



Elikagaiak botatzeak eragiten duen deserosotasun-maila...



3.-

ELIKAGAIAK ALFERRIK
BOTATZEAREN INGURUKO
ORAINTSUKO BILAKAERA

Euskadiko biztanleei galdetu zaie, euren ustez, urtebete lehenagotik hona elikagai gehiago edo gutxiago bota dituzten edo ez euren ohiturak bere horretan mantendu diren. Azpimarratzekoa da euskal biztanleen hautemateak joera positiboa adierazi duela. Galdetu zaienen % 55,1ek dio aurten urtebete lehenago baino elikagai gutxiago bota dituela, gehiengoa, alegia. Bestalde, % 41,3k ez du aldaketarik atzeman, eta % 3,6k soilik esan du elikagai gehiago bota dituela.

Elikagai gehiago bota dituztenei dagokienez, ohitura aldaketa honen arrazoiak ez daude axolagabekeriarekin lotuta, baizik eta arrazoi nagusizat etxera seme-alaba txikien etorrera jo dute (% 19,1) eta ondorioz, errutina berriak ezarri behar izan dituzte. Bestalde, antolaketa desegoki batetik eratorrita, % 17,1ek dio gehiegi erosi duela eta %14,8k, berriz, elikagaiak iraungi edo hondatu zaizkiola. Era berean, ohitura aldaketarekin zerikusia duten hainbat faktore bildu dira, besteak beste: etxean janari gutxiago prestatzea eta kanpoan maizago jatea (% 8,6) edo etxez etxeko janari asko eskatzea (% 2,6). Horrez gain, bakarrik bizi direnen ustez oso zaila da behar den bezainbeste erostea, pertsona bakarrak osatutako etxebizitza izanez gero (% 4,2).


Bestalde, azken urtean elikagai gutxiago bota dituztela aitortu duten biztanleek diote kontzienteki bereganatu dituzten jarraibideen ondorioz izan dela, besteak beste: janari kopuru gutxiago erostea edo prestatzea, errazioak doitu (% 30,1). Era berean, % 18,8k dio arazo honetaz gehiago jabetu dela eta horrenbestez, kontu handiagoz ibiltzen da janaria alferrik botatzerakoan. % 12,8k esan du errezeta berriei ekin egin diela dena aprobetxatzeko eta % 11,5ek, berriz, aipatu du janaria gehiago planifikatzen duela.

Inflazioak eta erosketa-saskiaren prezioek gora egiteak ere eragin diote etxeetan elikagai gutxiago alferrik botatzeari, % 8,0k esandakoari jarraiki. Harekin batera, % 2,5ek aurrezteka kausa nagusizat jo du.

Elikagaiak alferrik botatzearen bilakaerari buruzko hautematea

4.G.: Botatzen diren elikagaiei dagokienez eta iazkoarekin konparatuta, zure ustez aurten...?


Oinarria: Elkarriketatutako guztiak



Elikagaiak alferrik botatzearen bilakaerari buruzko hautematea etxe motaren arabera

4.G.: Botatzen diren elikagaiak dagokienez eta iaizkoarekin konparatuta, zure ustez aurten...?


Oinarria: Elkarriketatutako guztiak



Norberak elikagai gehiago alferrik botatzearen arrazoiak

5.G.: Zure ustez, zergatik bota dituzu iaz baino elikagai gehiago?


Oinarria: iazkoarekin konparatuta elikagai gehiago bota dituzten elkarrizketatutako guztiak (n=25)



Norberak elikagai gutxiago botatzearen arrazoiak

6.G.: Zure ustez, iazkoarekin konparatuta zergatik bota dituzu elikagai gutxiago?

Oinarria: lazkoarekin konparatuta elikagai gutxiago bota dituztenen elkarrizketatutako guztiak (n=386)



4.-

ELIKAGAIAK ALFERRIK
BOTATZEAREN AURKAKO
OHITUREN ERAGINA

Zalantzarik gabe, kontsumitzailearen ikuspuntutik, elikagai gutxiago alferrik botatzeari gehien eragiten dion faktoreetako bat erosketak planifikatzeko eta etxean elikagaiak kudeatzeko hainbat ohitura bereganatzea da, besteak beste, dendetara joan aurretik premiak errebisatzea, bulkadaz erostea saihesteko, etxeko premien araberako piezen kopurua erostea, bereziki produktu freskoetan edo galkorretan, izozkailuak edo elikagaiak kontserbatzeko bestelako erremintak erabiltzea, etab.

Horri dagokionez, orrialde hauetan erakusgai jarri da aipatutako ohituretako batzuek euskal kontsumitzaileengan sortutako eragina:

- % 13,5ek jango duena, menuak planifikatzen ditu beti eta % 26,9k, berriz, ia beti. Baiezta dezakegu hamar lagunetatik lauk, horrenbestez, etxean prestatuko dituen menuak zeintzuk izango diren argi eta garbi duela (% 40,4). % 15,4k, berriz, ez du jango duena inoiz edo ia inoiz planifikatzen. Talde hori gero eta handiagoa da gazteengan.
- Zerbait erosi aurretik jaki-tokia edo hozkailua errebisatzearen ohitura gehiago zabaldu da. Horri dagokionez, hiru kontsumitzaileetatik batek baieztatu du beti egiten duela (% 32,6). Hemen emakumeen ehunekoak gizonezkoenak baino bost puntu gehiago ditu, ohitura hori irmoki betetzen diotelarik.

- Produktu freskoak erosteko moduari dagokionez, alegia; aleka, xerretan edo solteko salmentan, edo ontziratutako produktuetan, emaitzak askotarikoak dira. % 52,7k dio ale solteak edo solteko salmenta nahiago duela, kopurua bere premietara egokitu dezakeelako, eta, % 25,1ek, berriz, dio ontziratutako produktuak erosteari lehentasuna ematen diola. % 22,2k bitara egiten du.

Badirudi gizonezko kontsumitzaileek emakumezkoek baino ontziratutako produktu gehiago erosten dituztela. Emakumezko kontsumitzaileen % 58,3k, nagusiki, solteko salmenta aukeratzen du, gizonezkoengan, berriz, talde hau % 47,1era jaisten da.


- Elikagaiak kontserbatzeko unean, 20 eta 65 urte arteko biztanleek izozkailua erabili ohi dute beti elikagaiak antolatzeko, eta % 28,6k, berriz, ia beti. Produktuak kontserbatzeko izozkia erabiltzeko ohitura kontsumitzaileen % 17,9tik urrun geratu da. Azken horien artean batzuek izozkailua noizbehinka erabiltzen dute eta beste batzuek, berriz, inoiz ez edo ia inoiz.

Etxean elikagaien kontserbatzeko ohitura badirudi emakumezkoen kolektiboan hedatuagoa dagoela, eta baita 50 urtetik gorakoen artean ere.

Elikagaien erosketak eta asteko menuak planifikatzea

11. G.: Elikagaiak erosi aurretik, zer jango duzun eta asteko menuak planifikatzen al dituzu?


Oinarria: Elkarriketatutako guztiak



Elikagaien erosketak eta asteko menuak planifikatzea

11. G.: Elikagaiak erosi aurretik, zer jango duzun eta asteko menuak planifikatzen al dituzu?


Oinarria: Elkarriketatutako guztiak



Jaki-tokia errebisatzea erosketetara joan aurretik

12.G.: Jaki-tokia eta hozkailua errebisatzen al duzu elikagai berriak erostera joan aurretik, zer duzun eta zer ez jakiteko?


Oinarria: Elkarrizketatutako guztiak



Jaki-tokia errebisatzea erosketetara joan aurretik

12.G.: Jaki-tokia eta hozkailua errebisatzen al duzu elikagai berriak erostera joan aurretik, zer duzun eta zer ez jakiteko?


Oinarria: Elkarrizketatutako guztiak





Ontziratutako produktuak vs solteko salmenta edo alekako produktuak aukeratzea

13.G.: Nola erosten dituzu elikadurako produktu freskoak, alea, xerretan edo solteko salmentan, edo dagoeneko ontziratuta erosten dituzu?

Oinarria: elkarrizketatutako guztiak




- Nagusiki alea, xerretan edo solteko salmentan
- Nagusiki ontziratuta
- Bitara



Izozkailuaren antolaketa eta erabilera

14. G.: Erosketak etxera ekarri ondoren, izozkailua erabiltzen duzu eta izoztu beharreko elikagaiak antolatzen dituzu?


Oinarria: Elkarriketatutako guztiak



Izozkailuaren antolaketa eta erabilera

14. G.: Erosketak etxera ekarri ondoren, izozkailua erabiltzen duzu eta izoztu beharreko elikagaiak antolatzen dituzu?

Oinarria: Elkarrizketatutako guztiak



5.-

ELIKAGAIAK ALFERRIK
BOTATZEARI BURUZKO
BIZTANLEEN JARRERAK ETA
IRITZIAK

5.1. Kolektibo eta erakunde desberdinei elikagaiak xahutzearen aurka jarduteko emandako gaitasuna

Epigrafe honetan Euskadiko biztanleen jarrerak aztertuko dira, elikagaiak alferrik botatzeari dagokionez. Lehenik eta behin, herritarrek kolektibo eta erakunde desberdinei, arazo honi aurre egiteko eman dioten jardueragaitasuna aztertu da, besteak beste: herri administrazioa, komunikabideak, elikadura industria edo kontsumitzaileak beraiek.

Azpimarratu behar den lehengo datuak dio euskal herritarren ustez erakunde edo kolektibo guztiek elikadurak alferrik galtzearen aurka jarduteko gaitasun handia dutela. Kolektibo guztiei emandako puntuazio guztiek batezbesteko 7,0 puntuak gainditzen dituzte, 0 eta 10 arteko eskala batean.

Jarduera-gaitasunari dagokionez, kontsumitzaileak beraiek euren etxeetan lehenengo postuan aurki ditzakegu (8,31 puntu). Ondoren eta oso gertu elikadura industria topatuko dugu. Elkarrizketatutakoek azken horri gauzak aldatzeko gaitasun handia esleitu diote (7,96 puntu).

Horrez gain, elikadurako merkataritza establezimenduei emandako jarduera marjina ere garrantzitsua da, besteak beste, ostalaritza, tabernak eta jatetxeak, batezbesteko 7,5 puntuetatik gora.

Beste aldetik, euskal herritarrek honako erakundeak atzerago kokatu dituzte, dagokien erantzukizunaz salbuesten ez badituzte ere: komunikabideak (7,29 puntu), Herri Administrazioa (7,19 puntu) eta Kontsumo bulegoak (7,00 puntu).

Orohar, emakumeak zorrotzagoak dira erakunde edo kolektibo guztiek elikagai gutxiago alferrik botatzearen alde jarduteko gaitasunari dagokionez.


Kontsumitzaileen adina aintzat hartzen badugu, ikus dezakegu hainbat desberdintasun nabarmentzen dela. Alde batetik, badirudi 35 urtetik gorako biztanleek irmoki uste dutela biztanleria bera dela elikagaiak alferrik botatzearen aurkako borrokan jarduera gaitasuna duen kolektibo nagusia, eta, horrenbestez, lehengo postuan kokatu dute.

Bestalde, 35 urtetik beherakoengan begirada elikadura industriari zuzendu zaio, eta horien ustez jarduera gaitasun handiena duen kolektiboa da, kontsumitzaileei beraiei egokitutako paperaren aurretik.

Elikagaiak alferrik botatzearen aurka jarduteko gaitasuna esleitzea

16. G.: Ondoren adierazten dizkizudan erakunde edo kolektibo hauetatik, esan zure ustez horietako bakoitzak zein gaitasun daukan elikagaiak alferrik botatzearen aurkako borrokaren alde jarduteko.


Oinarria: Elkarrizketatutako guztiak



Elikagaiak alferrik botatzearen aurka jarduteko gaitasuna esleitzea, sexuaren arabera

16. G.: Ondoren adierazten dizkizudan erakunde edo kolektibo hauetatik, esan zure ustez horietako bakoitzak zein gaitasun daukan elikagaiak alferrik botatzearen aurkako borrokaren alde jarduteko.


Oinarria: Elkarrizketatutako guztiak



Elikagaiak alferrik botatzearen aurka jarduteko gaitasuna esleitzea, adinaren arabera

16. G.: Ondoren adierazten dizkizudan erakunde edo kolektibo hauetatik, esan zure ustez horietako bakoitzak zein gaitasun daukan elikagaiak alferrik botatzearen aurkako borrokaren alde jarduteko.

Oinarria: Elkarrizketatutako guztiak



5.2. Elikagaiak alferrik botatzearen ondorioak identifikatzea


Sarritan gure gertuko inguruan dauden arazoez jabetzen gara, hala ere, ez gara arazo horiek maila orokor batean eragindako ondorioez hainbeste jabetzen. Horregatik, Euskadiko herritarrei galdetu zaie elikagaiak alferrik botatzeak gizartean zuzenean sortzen dituen ondorioei buruz.

- Euskadiko herritar gehienek esan dute ondorio nagusia dela elikagaiak alferrik botatzeak bidegabekeria sortzen duela mundu mailan, alegia; lehen mundua ugaritasunean bizi den eta elikagaiak alferrik botatzen dituen planetan bertan hirugarren munduak gosea dauka, (% 64,0), eta horrek arazoaren ikuspegi globala agerian uzten du. *“Bidegabekeria sozialeko” dimentsio* hau urte gehiago dituen herritarrengan nabariagoa da, 50 urtetik gorakoengan, zehazki.
- Gehiago batek ere gunea *mikro maila* batera gerturatu du eta kontsumitzaileen patrikara zuzentzen du. Hamar lagunetatik seik inguru esan du elikagaiak alferrik botatzeak *galera ekonomikoak ekartzen dizkiela kontsumitzaileei*, ondoren botako ditugun produktuak alferrik erosteagatik (% 57,0).
- Bestalde, talde txikiago batek elikagaiak alferrik botatzearen ondorioak *ingurumenean sortzen duen inpaktura* zuzendu ditu, analisira aldagai berri bat ekarriz. Horrela, % 49,0k dio hau bezalako jasangarriak ez diren ereduaren aldeko apustuak kalte handia ekartzen diola planetari. Eta % 45,9ren ustez elikagaiak alferrik botatzeak ingurumari eragiten dio, zehazki, aztarna hidrikoari. *Jasangarritasunarekin* lotutako begirada hau indartsuagoa da 35 eta 49 urte arteko herritarrengan.
- Maila baxuagoan, % 34,4k adierazita, elikagaiak alferrik botatzeak *galera ekonomikoa dakarkie ekoizleei eta elikadura kaltearen gainontzeko kideei*.

Elikagaiak alferrik botatzearen ondorioak

17.G: Zure ikuspegiaren arabera, ondoren adierazten dizkizudan aukeretatik, zure ustez zeintzuk dira elikagaiak alferrik botatzeak gure gizartearen zuzenean eragiten dituen ondorioak?

Oinarria: Elkarriketatutako guztiak




Elikagaiak alferrik botatzearen ondorioak, adinaren arabera

17.G: Zure ikuspegiaren arabera, ondoren adierazten dizkizudan aukeretatik, zure ustez zeintzuk dira elikagaiak alferrik botatzeak gure gizartean zuzenean eragiten dituen ondorioak?

Oinarria: Elkarriketatutako guztiak

■ 20 eta 34 urte artean (n=169) ■ 35 eta 49 urte artean (n=244) ■ 50 eta 65 urte artean (n=288)



5.3. Elikagaiak alferrik botatzearen aurrean euskal biztanleek hartutako jarrerak

Euskal biztanleek elikagaiak alferrik botatzearen aurrean erakutsitako jarrerak neurtzeko xedez, elkarrizketatutakoei eskatu zaie elikagaiak xahutzearekin lotutako analisi dimentsio desberdinek bildutako hainbat baieztapenarekin adierazitako adostasun- edo desadostasun-maila aditzera ematea.


- Kotsultatutako euskal herritar bakoitzetik ia zortzik adierazi du, neurri handiagoan edo txikiagoan, ados dagoela *"elikagaien prezioen igoeraren ondorioz botatzen den janaria gehiago baloratzen dut"* baieztapenarekin; % 79,3, alegia. Horri dagokionez, badirudi gaur egungo etapa inflazioaren eraginez etxeetan elikagaiak alferrik botatzea beste modu batean baloratzen dela.
- % 64,2 bat dator *"komunikabideek benetan kontsumitzen ditugun baino elikagai gehiago behar ditugula sinestarazten digutelako"* iritziarekin. Gehiengoak dio kontsumismoak, nolabait, gehiago bultzatzen duela, komunikabideen eraginez.
- Eszenatoki honen erdian, ez da harritzekoa galdetutakoen gehienak (% 52,7), neurri handiagoan edo txikiagoan, bat etortzea *"2x1 edo 3x2 bezalako eskaintzetan edo promozioetan erotzen naiz"* baieztapenarekin.
- Horrez gain, ulertzekoa da bizi garen ugaritasunaren gizarte honetan herritarren % 51,6k uste izatea *"elikagaiak erosterakoan nahiago duela gehiegi erostea eta motz ez gelditzea"*.

- *Bizitzan daramagun erritmoa eta erosketak edo menuak planifikatzea oso zaila da bezalako adierazpenen aurrean iritziak askotarikoak dira. Horri dagokionez, % 38,8 harekin bat dator eta, % 34,8, berriz, aurka dago.*
- *Horrez gain, aurkako iritziak aurkitu ditugu erositako produktuek "lehentasunezko kontsumo data" edo "iraungitze data" daramaten ala ez begiratzeari dagokionez, izan ere, batzuetan badirudi kontsumitzaileek ez diotela horri erreparatzen. Adierazpen horretan, % 36,4k dio ez duela oso argi edo ez diola kasurik egiten.*
- *Bestalde, hainbat herritarrek oraindik ez du zenbait jarrera modu positiboan bereganatu eta bazterrean uzten jarraitzen du. Horien artean, besteak beste, herritarren % 35,9k dio *lotsa pixka ematen diola hondarrak eramatea jatetxe batean jan ondoren, eramateko eskainiz gero*. Ia herritar kopuru berberak dio, berriz, horren aldekoak direla erabat.*
- *Lau kontsumitzailetik batek baino gehiagok, % 27,5, alegia; uste du *logikoa dela elikadurako merkataritza establezimenduetan itsusiagoak diren produktuak botatzea egoera ezin hobean egon arren, horiek beraiek ere ez lituzketeelako erosiko*.*
- *Azkenik, hamar kontsumitzailetik sei ez dator bat *"hondarrak aprobetxatzea edo hondarrekin beste plater bat prestatzea zaharkituta dago"* baieztapenarekin, (% 59,1). Kontsumitzaileen % 14,1 soilik agertu da ideia horren alde. Hala ere, gazteagoak diren herritarrengan sustraituago dago, 35 urtetik beherakoengan, alegia. Horien artean, lautik batek horrela pentsatzen du (% 25,4).*

Elikagaiak alferrik botatzearen aurreko jarrerak

15.G.: Adierazi ados zauden ala ez elikagaiak erosteari eta produktuak aprobetxatzeari buruzko hainbat baieztapenarekin.

Oinarria: Elkarrizketatutako guztiak



* 0 eta 10 arteko balorazio eskalaren tartean. Ados: "erabat ados" eta "nahiko ados" taldeek biltzen duten ehunekoa


Elikagaiak alferrik botatzearen aurreko jarrerak

15.G.: Adierazi ados zauden ala ez elikagaiak erosteari eta produktuak aprobetxatzeari buruzko hainbat baieztapenarekin.

Oinarria: Elkarriketatutako guztiak

Adierazitako baieztapenekin ados dauden herritarren tasa, sexuaren arabera

■ Gizonezkoa (n=350) ■ Emakumezkoa (n=351)



* Ados: "erabat ados" eta "nahiko ados" taldeek biltzen duten ehunekoa


Elikagaiak alferrik botatzearen aurreko jarrerak

15.G.: Adierazi ados zauden ala ez elikagaiak erosteari eta produktuak aprobetxatzeari buruzko hainbat baieztapenarekin.

Oinarria: Elkarriketatutako guztiak

Adierazitako baieztapenekin ados dauden herritarren tasa, adin taldearen arabera

■ 20 eta 34 urte artean (n=169) ■ 35 eta 49 urte artean (n=244) ■ 50 eta 65 urte artean (n=288)



6.-

ELIKAGAIAK ALFERRIK
BOTATZEAREN AURKAKO
JARDUEREN ERAGINA

6.1. Elikagaiak alferrik botatzearen aurkako herritarren ekimenak

Euskal herritarren % 46,0k dio elikagaiak alferrik botatzearen aurkako nolabaiteko jardueraren bat ezarri duela, norberaren izenean. Horri dagokionez, ekimenak nabarmenagoak dira emakumeen kolektiboan; emakumeen % 51,4, gizonezkoen % 40,4 aurka.

Adinari dagokionez ere aldeak topatuko ditugu. 35 urtetik beherako gazteengan ekimen gehiago ikusiko ditugu. Era berean, bakarrik bizi direnek eta seme-alabarik gabe bikotean bizi direnek ere ekimen gehiago aurkeztu dituzte.


Garatutako jardueren artean, nagusiki elikagai gutxiago edo zehatz-mehatz behar dena erosteko edo prestatzeko ekimena aurkituko dugu (% 25,5). Horrez gain, % 17,6k dio hondarrak aprobetxatzen dituela edo haiekin plater berriak prestatzen dituela. Beste aldetik, % 15,0 erosketak edo janariak antolatzen hasi da. Aurretik aintzat hartzen ez zuten portaera bat.

Halaber, honako hauek ere aldizka aipatu dira: elikagaiak alferrik botatzearen aurkako aplikazioak (% 11,8), elikagaiak izoztea (% 9,6), elikagaien bankuari janaria edo dohaintzak ematea (% 7,3) edo laster iraungiko diren produktuak erostea (% 5,7), besteak beste.

Elikagaiak alferrik botatzearen aurkako herritarren ekimenak

18. G.: Norberaren izenean, elikagaiak alferrik botatzearen aurkako ekimenaren bat burutu al duzu?, Zein?


Oinarria: Elkarriketatutako guztiak



Elikagaiak alferrik botatzearen aurkako herritarren ekimenak

18. G.: Norberaren izenean, elikagaiak alferrik botatzearen aurkako ekimenaren bat burutu al duzu?, Zein?

Oinarria: Elkarrizketatutako guztiak



6.2. Elikagaiak alferrik botatzearen aurkako aplikazioak ezagutzea eta erabiltzea

Azken urteotan, hainbat aplikazio garatu dira. Bertan, alde batetik, merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduak biltzen dituzte, eta beste aldetik, berriz, kontsumitzaileak beraiek eta egoeran onean dauden produktuak alferrik botatzea saihestea dute helburu. Aipatutako produktu horiek egunaren amaieran, saltzen ez badira edo irteerarik ematen ez bazaie, bota egiten dituzte, horregatik, kontsumitzaileak produktu horiek merkeago eros ditzake.

Egoera onean dauden elikagaien sortak "salbatzeko" sortu diren aplikazio hauen nabaritasuna eta aplikazioa sakon aztertu dira 20 eta 65 urte bitarteko euskal biztanleei egindako zundaketan.

Horri buruzko galderak espresuki egin ondoren, hamar lagunetik seik esan du elikagaiak alferrik botatzearen aurkako aplikazioaren bat ezagutzen duela. Ezagunena *Too Good To Go* da eta gainontzeko erreferentziak urrun agertzen dira (% 61,4).


Encantado de comerte edo *Phenix* bezalako beste aplikazioak ez dira hain ezagunak. Bestalde, nahiz eta gutxi batzuk izan, alferrik botatzen diren elikagaiak murrizten lagundu dezaketen bestelako aukerak aipatu dira. Horien artean, besteak beste: *Wetaca*, tuperrak eskaintzen ditu errazio zehatzarekin, edo *Olio*, erabiltzaileak harremanetan jartzen ditu, erabiliko ez dutena partekatzeko, baita elikagaiak ere.

Erremintak hauek ezagutzea elkarrizketatutakoen belaunaldiarekin estu lotuta dago, 20 eta 34 urte bitarteko taldea nabarmentzen delarik. Kontsumitzaileen adinak gora egiten duen heinean nabaritasun hura behera doa, belaunaldi gazteagoek naturaltasun osoz erabiltzen diren aplikazio teknologikoak baitira.

Elikagaiak erreskatatzeko aplikazioak ezagutzea

19. G.: Ezagutzen al duzu elikagaiak alferrik botatzearen aurkako honako aplikazioen bat?


Oinarria: Elkarriketatutako guztiak




Elikagaiak erreskatatzeko aplikazioak ezagutzea

19. G.: Ezagutzen al duzu elikagaiak alferrik botatzearen aurkako honako aplikazioen bat?

Oinarria: Elkarriketatutako guztiak




Elikagaiak alferrik botatzearen aurkako aplikazioak ezagutzen dituen Euskadiko herritarren tasa, aldagaien arabera



Elikagaiak erreskatatzeko aplikazioak ezagutzea

19. G.: Ezagutzen al duzu elikagaiak alferrik botatzearen aurkako honako aplikazioen bat?

Oinarria: Elkarriketatutako guztiak



Aipatutako aplikazioen ezagutzatik haratago eginez, erabilera mailak modu bereiz batean aztertzeke atal bat osatzen du. Horri dagokionez, galdetutakoen % 40,0k esan du Too Good To Go bezalako aplikazioaren bat erabili duela noiz edo noiz, elikagai sortaren bat saltzeko. Hasteko, esan behar da gehienek ezagutzen dutela aplikazioa, eta are gehiago, kontuan hartzen badugu laginketa internatuen talde batean egin dela. Hala ere, tarte handia azaltzen da aukera hau probatzeari dagokionez; hogeitahuneko puntu baino gutxiago.


Eta Too Good To Go bezalako aukera hauek probatu dituztenak nagusiki aro digitalean jaiotako biztanleak dira, 35 urtetik beherakoak, alegia.

Elikagaiak erreskatatzeko aplikazioak ezagutzea

20. G.: Ezagutzen al duzu elikagaiak alferrik botatzearen aurkako honako aplikazioen bat? / 21. G. Eta inoiz erabili al duzu?

Oinarria: Elkarrizketatutako guztiak

■ Ezagutzen du ■ Erabili du



Elikagaiak salbatzeko aplikazioak ezagutzen ez dituztenei edo nahiz eta ezagutu, inoiz erabili ez dituztenei haien xedea azaldu zaie, hurrengo informazioarekin, ondoren, alde batetik, ekimen hauen balorazioan sakontzeko, eta bestaldetik, norberak egokitzat jotzen dituen jakiteko; labur esanda: ea euren buruak mota honetako aplikazioen xedeko publiko bilakatzeko asmoa duten.

Zer dira elikagaiak erreskatatzeko aplikazioak?



Aplikazio hauetan, erabiltzaileek hainbat establezimendu geolokalizatuta aurki ditzakete. Horietan egoera onean dauden baina hurrengo egunean salgai egongo ez diren elikagai sortak eskaintzen dira. Alferrik botako diren elikagaiak salbatzeko sorta hauek merkeago salduko dira, baina erabiltzaileak ez du jakingo sorta bakoitza zertaz osatuta dagoen, establezimendu bakoitzean egunero soberan dauden elikagaien arabera izango baita.


Oro har, euskal kontsumitzaileek oso balorazio positiboa eman diete bota behar zituzten elikagai hauen sortak salbatzeko aplikazio hauei. % 33,1en ustez oso interesgarriak dira eta % 38,6ren ustez, berriz, nahiko interesgarriak dira. Adin talde guztietan, gehiengoek balorazio positiboa adierazi dute, ahal ere 35 eta 49 urte bitarteko taldean kopuru hori handixeagoa izan da.

Baina aplikazio hauek kontsumitzaileentzat egokitzat jotzerakoan, emaitzek nabarmen egin dute behera. Hemen, % 13,6k dio oso egokiak direla norberarentzat, erosle gisa eta % 28,3k, berriz, nahiko egokia dela dio. Beste aldetik, % 34,8 bitarteko posizioan kokatu da eta % 23,3 oso urrun kokatu da, aplikazioak oso desegokiak edo nahiko desegokiak direla uste duelako.

Elikagaiak erreskatatzeko aplikazioen balorazioa

21.1. G.: Zer iruditzen zaizue mota hauetako ekimenak?,

Oinarria: Elikagaiak alferrik botatzearen aurkako aplikazioak ezagutzen ez dituzten edo ezagutu arren, erabili ez dituzten elkarriketatutako guztiak (n=412)




* Interes tasa: oso interesgarriztat eta nahiko interesgarriztat jotzen duen ehunekoa

Norberak erabiltzeko elikagaiak erreskatatzeko aplikazioen egokitzapen-maila

21.2. G.: Zuretzat egokiak dira?

Oinarria: Elikagaiak alferrik botatzearen aurkako aplikazioak ezagutzen ez dituzten edo ezagutu arren, erabili ez dituzten elkarrizketatutako guztiak (n=412)



* Egokitzapen tasa: asko edo nahiko adierazten duen ehunekoa

Elkarrizketatu den Euskadiko biztanleen gehiengoaren ustez oraindik bide luze geratzen da euskal gizartean elikagaiak alferrik botatzearekiko kontzientziazioan. % 50,2k dio “kontzientziazio handia” falta dela eta % 36,7ren ustez “nahiko beharrezkoa” da. Bestaldetik, biztanleen % 13,2ri ez zaio hain beharrezkoa iruditzen elikagaiak alferrik botatzeari eta haren ondorioei buruzko informazioa ematea.

Emakumeek eta adin gehiagoko biztanleek uste dute oso beharrezkoa dela gizartea arazo honekiko gehiago kontzientziaztea.

Horri dagokionez, “Janaria ez da botatzen” izeneko kanpainaren irudi bat erakusgai jarri da, Eusko Jaurlaritzak eta Elikak garatuta, kanpaina hori nabarmendu den eta kontsumitzaileek gogoratzen duten maila neurtzeko helburuarekin.

Galdetutako biztanleen % 24,6k dio kanpaina ikusi duela, neurri handiagoan edo txikiagoan. % 73,6k, berriz, esan du ez duela gogoratzen edo ez duela haren berririk.



Gizonezkoen artean kanpaina emakumezkoek baino gehiago gogoratzen dute (% 28,6 eta % 24,3, hurrenez hurren). Baita gazteagoak diren biztanleengan ere, 35 urtetik berakoengan – % 34,4 -, eta Gipuzkoako lurralde historikoan (% 30,1).



Elikagaiak alferrik botatzearekiko kontzientziatzeko beharraren balorazioa

22. G.: Zure ustez ze mailatan kontzientziatu eta sentsibilizatu behar da euskal gizartea elikagaiak alferrik botatzeari eta horren ondorioei dagokienez?

Oinarria: Elkarriketatutako guztiak




* 0 "batere" eta 10 "asko" arteko beharraren mailari buruzko eskalaren batezbesteko puntuazioa

Elikagaiak alferrik botatzearekiko kontzientziatzeko beharraren balorazioa

19. G.: Zure ustez ze mailatan kontzientziatu eta sentsibilizatu behar da euskal gizartea elikagaiak alferrik botatzeari eta horren ondorioei dagokienez?


Oinarria: Elkarrizketatutako guztiak



“Janaria ez da botatzen” kanpainaren oroitzapena

23. G.: Gogoratzen al zara elikagaiak alferrik botatzearen aurka Eusko Jaurlaritzak garatutako “Janaria ez da botatzen” izeneko komunikazio-kanpaina?


Oinarria: Elkarrizketatutako guztiak



Janaria ez da botatzen” kanpainaren oroitzapena

23. G.: Gogoratzen al zara elikagaiak alferrik botatzearen aurka Eusko Jaurlaritzak garatutako “Janaria ez da botatzen” izeneko komunikazio-kanpaina?

Oinarria: Elkarrizketatutako guztiak



8.- AZKEN GOGOETAK



Azken urteotan, elikagaiak alferrik botatzeren eta haren ondorioen arazoa erakundeen agendetan agertzen da. Bertan, aipatutako arazoa mundu mailako kezka moduan jasotzen dute eta elikadura katearen etapa desberdinetan parte hartzen duten eragile, kolektibo eta erakunde desberdinak inplikatzeko dira; elikagaien ekoizpenetik amaierako kontsumitzailerara arte.

Aurtengo urtarrilean elikagaien galerak eta alferrikako xahutzea prebenitzeari buruzko Legea ontzat eman da. Laburbilduz, esparru legal honek prebentzioari eta kontzientziazioari lehentasuna eman nahi die.

Euskal herritarrek ezagutzen dute elikagaiak alferrik garatzeari dagokion mundu mailako kezka hau, azterlan honetan zehar ikusi ahal izan dugun bezala.



Eta lortutako adierazleek horixe bera egiaztatzen dute:

- Alde batetik, euskal kontsumitzailearentzat elikagaiak zaborrera botatzea oso desatsegina da. Aurkako sentimendu horren intentsitate maila batezbesteko 9,2 puntukoa da 0 eta 10 bitarteko eskala batean, prestatu edo manipulatu gabe, hondatzen, iraungitzen eta jaki-tokitik edo hozkailutik ateratzen diren elikagaiez ari garenean. Baina, hondarrak, lapikoan edo platerean gera daitezkeen elikagaiak aipatzen ditugunean aurkako sentimenduaren intentsitatea ere nabarmena da (8,8 puntu).
- Bestalde, kontsultatutako pertsonen % 46,0k dio norberaren izenean ekimen zehatzaren bat ezarri duela, etxean elikagaiak alferrik botatzea saihesteko. Kontzientziazioaz haratago eginez, ekintzari heltzeko aurrerapauso bat gehiago.



- Era berean, elkarrizketatutako biztanleen % 55,1ek uste du azken urte honetan iaz baino elikagai gutxiago alferrik bota dituela.

Biztanleek arazo honekiko gehiago kontzientziatzeak azken urtean elikagai gutxiago alferrik galtzea eragin du eta horrenbestez, hainbat ekintza edo kontsumo ohituretan aldaketa txikiak ezarri dira, besteak beste, etxeko premietara gehiago egokitutako elikagaiak erostea edo prestatzea, erosketak gehiago planifikatzea eta antolatzea, elikagaiak hobeto kontserbatzen saiatzea, etab.



Baina zalantzarik gabe, une honetan izaten ari garen inflazioaren eraginez, erosketa-saskiaren prezioen igoerarekin, kontsumitzaileak arazo honi modu desberdinean begiratzen dio. Orain beste modu batean hautematen da, % 79,3k baieztatu duen bezala.

Bestalde, esanguratsua da euskal gizarteak, kolektibo gisa, bere gain hartu duela elikagaiak alferrik galtzearen aurkako borrokan jarduteko gaitasuneko zati handia.

Eta kontrakoa badirudi ere, jarduteko gaitasunaren zati hori elikadura industriari edo elikagai dendak edo ostalaritza bezalako sektore zehatzei esleitutakoaren aurretik kokatu da, hondarrak maneiatzeari dagokionez.



Alde batetik kontsumitzaileak, eta bestalde merkataritza eta ostalaritza establezimenduak biltzen dituzten elikagaiak xahutzearen aurkako aplikazioak garatu eta ezarri dira, hurrengo egunean salgai jarriko ez diren egoera onean dauden elikagai sortak salbatzeko. Horiek guztiek oso harrera ona eduki dute herritarrengan. Galdetutako hamarretik seik aplikazioaren bat ezagutzen du eta ezagunena EToo Good To Go da.

Oro har, aplikazio hauek oso ondo baloratu dira, nahiz eta, azken finean, horien erabilera ez da profil guztietarako egokia. Sortak salbatzeko aurrerapausoa eman dutenak, nagusiki biztanle gazteagoak eta kontzientziatuagoak baitira.



Elkarrizketatutako euskal biztanleek ulertzen dute elikagaiak alferrik galtzearen arazoak gizartean inpaktu handia eragiten duela, mundu mailan. Baina maila txikiago batean ere, ekonomian inpaktu handia sortzen du kontsumitzaileen patriketan.

Baliteke ingurumenean eragiten duen inpaktua hain nabarmena ez izatea, eta baita ekoizpenaren sektorean eragiten duena ere, beraz, oraindik ere bere askotariko dimentsioak ulertu ahal izateko hobetzeko bide luzea geratzen da.

Eta horri dagokionez, Euskadiko biztanleek argi ikusten dute gizartearen kontzientziazioan aurrera egiten jarraitu behar dela, "Janaria ez da botatzen" kanpaina bezalako ekimenekin.



euskadiko merkataritzaren behatokia
observatorio del comercio de euskadi



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz



945 019 718



behatokia-merkataritza@euskadi.eus



www.euskadi.eus/enfokamer-observatorio-comercio